

ODIN REDBEARD

BALDAR BIKINGO

ETA

KANPALDI  
BASATIA



desclée

BALDAR BIKINGO

ETA



KANPALDI  
BASATIA

ODIN REDBEARD



desclée



© Nosy Crow Ltd. 2012

Idazlea: Odin Redbeard

Testua © Hothouse Fiction, 2012

© Ilustrazioak: Sarah Horne 2012

Jatorrizko izenburua:

Vulgar the Viking and the Spooky School Trip

Itzulpena © 2018 Usoa WYssenbach Ibarra

© 2018, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao

Tlf.: 94 423 30 45

[www.desclee.eu](http://www.desclee.eu)

[www.edesclee.com](http://www.edesclee.com)


Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).


CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-2981-2

Legezko gordailua: BI-685-2018

Inprimatzailea: Grafo S.A. - Basauri





# LEHENENGO ATALA

## BERRIZ ERE ESKOLARA

—Atzera, munstro! Ospa! Zureak egin du!

Baldar Bikingo, ezpata eskuan, Negar-  
ibarko urmaeletik bat-batean irtendako itsas  
suge lirdingatsuari oldartu zitzaion, eta  
airean emandako sastakada ausart batez,  
atzera egitera behartu zuen piztia.

Herritar xumeak, bien bitartean, izu-laborriak  
harturik zeuden, garrasi betean  
batera eta bestera korrika, itsas piztia  
ikaragarriarengandik ihesi, babesleku



bila. Baldarrek tinko eutsi zion. Ezpataren kirtenari estu-estu heldu, eta begietara begiratu zion munstrotzarrari.

—Benetako bikingo bati aurre egiten ausartzea ere! —esan zuen mutikoak. Burua atzerantz bota, eta barre egin zuen—. Ia gero!

Suge erraldoiak, orduan, txistu egin, eta luze-luze jarri zen, dorre garai bat bezala, eguzkia bera ere tapatuz. Letagin zorrotzak erakutsi zizkion bikingo txikiari, eta balearen haragi ustelaren kiratsa irten zitzaion ahotzar zabaletik, eta bat-batean, trumoia bezala lehertu zen ahots ozenaz, honela mintzatu zitzaion piztia ikaragarria:

—Esnatu,  
loti hori!

Baldarrek  
begiak kliskatu  
zituen. Ezpata  
jaitsi zuen.

—Zee... zer?  
—esan zuen.



Norbaitek besotik tiratu zion, eta itsas  
sugea laino lauso batean desagertu zen.


Baldarrek begiak  
zabaldtu zituen, eta  
amaren aurpegia  
ikusi zuen bere  
ganean makurtuta.  
Ez zen itsasoko  
munstroa bezain  
beldurgarria,  
baina ez zen  
lasaigarria ere.

—Berriz ere ametsetan?

—galdetu zion.

Baldarrek baiezkoa egin zion  
erdi lo.

Nolatan ez zen ohartu ametsa  
besterik ez zela? Negar-ibarren ez  
baitzen inondik ere halako gauza  
zirrarragarririk gertatzen. Herriko  
gauzarik beldurgarriena bere amaren  
sukalkiak ziren.





—Eta zer izan da oraingoan? Itsas sugea ala kasko leherkorra?

—Itsas sugea —esan zuen Baldarrek. Ametsera itzultzen saiatu zen, baina erabat desagertua zen ordurako. Aharrausi egin, eta tapakian bildu zen. Agian, berriz ere lokartzen bazen...

—Ezta pentsatu ere!  
Berandu egingo  
zaizu! —esan zion  
amak. Helga zen  
Negar-ibar osoan  
zegoen emakumerik  
handiena eta  
sendoena.



Gizon gehientsuenak baino indartsuagoa ere bazen. Esku bakarraz jaso zuen semearen ohea. Baldarrek oihu egin zuen ikaratuta zoru gogor hotzera erortzean.

Gorantz begiratzean, tunika gris bat erori zitzaion buru gainera.

—Jantzi –agindu zion amak—. Lehenbiziko eskola egunean dotore egotea nahi dut.

Bost minutu geroago, Baldar sukaldera sartu zen oinak herrestan, eta mahai ondoko bankuan eseri zen burumakur. Aita, Harald, hantxe zegoen, ogi kiskali baten gainean ahuntz gurina zabaltzen.

Txigorkia labanaz igurzten zuen bakoitzean, ogi-apur txiki beltz ugari





altxarazten zituen, zuzenean bere bizar fin eskasean txertatuak geratzen zirenak.



—Egun on, Baldar —txio egin zuen Haraldek—. Eskolara itzultzeko gogoz?

Semeak ez zuen erantzuna gehiegi pentsatu beharrik izan.

—Ez ba —hasperen egin zuen—. Batere.

*Klanka!* Amak ogi txigorki kiskalia utzi zion aurrean.

—Jan —esan zuen Helgak—. Ez duzu eskolara berandu iritsi nahiko, ezta?

—Tira, egia esateko... —hasi zen esaten Baldar.

—Ai, ai, eskola. Bizitzako egunik zoragarrienak —esan zuen Haraldek.

Baldarrek sorbaldak jaso zituen. Espero zuen benetan hala ez izatea.

—Hainbeste gauza ikasten dira han —Haraldek hizketan jarraitu zuen, ahoa ogi erre belztuaz betea zuela—. Irakurtzen... eta zera... beste gauza batzuk. Ez nintzatekeen hain urrutira iritsiko eskolagatik izan ez balitz.

—Komun garbitzailea zara, aita —esan zuen Baldarrek.

—Egia! —oihukatu zuen Haraldek—. Eta eskolan gogor saiatuz gero, baliteke egunen batean zu ere komun garbitzailea izatea.

—Nik ez dut halakorik izan nahi, aita. Nik benetako bikingo izan nahi dut, *iruzurgintzan* eta *lapurgintzan* aritzeko, ez komun-zuloak garbitzen.

Haraldek minduta begiratu zion.

—Garbitzea baino gehiago da —esan zuen marmarka—. Distira ere atera behar da.



—Eskolak benetako bikingoei buruz ikasteko balio beharko luke —hasperen egin zuen Baldarrek—. Baina ea nor ausartzen den irakasleari ezer iradokitzen.

—Jan —eten zion Helgak, eta *krask!*, ogiari zati bat kendu, eta kolpetik sartu zion ahoan semeari—. Nik dakidala, Dagmar Zozokoterena izan da beti Negar-ibarko irakaslea. Eta ez du ezer txarrik.

—Jakina baduela —esan zuen Baldarrek mastekatu bitartean—. Zozokote hutsa da.

—Tira, baliteke... —esan zuen Helgak—. Baina zera ere bada... sinesgarria.

*Sinesgarriki aspergarria*, pentsatu zuen Baldarrek, baina ahoa beteegia zeukan ezer esateko. Bat-batean, tirakada sendo bat sentitu zuen ilean, eta oihu egin zuen, aita ogi apur kiskaliz zipriztinduz. Burua jiratzen saiatu zen, baina amak tinko heltzen zion.

—Ez mugitu edo begi bat galduko duzu! —ohartarazi zion amak. Eskuan emakumeak berak elur-oreinen adarrekin



egindako orrazia zeukan. Tira eta tira zebilen Baldarren ile luze eta koipetsuko korapiloak askatzeko egundoko ahaleginak eginez, adatsak tenkatuz eta tiratuz, baina ez zirudien laxatzeko asmorik zutenik, eta Helgak, azkenean, amore eman behar izan zuen.

—Horrela beharko du  
—esan zuen hasperenka.

Semeari kaskoa eman, eta hark jantzi egin zuen. Nabari zen Helgak argizariaz garbitu zizkiola bi adarrak, ezin distiratsuago baitzeuden—.

Ederki, prest zaude eskolara joateko —esan zuen—. Eta ez sartu arazoetan!

